

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/24

Aldundiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek azkenengo hiru urteetan onetsi dituen arauz besteko proposamenen %77 bete dau daborduko

Aldundiak, azkenengo hiru ikasturteetan Bizkaiko Batzarretan onetsi diran arauz besteko proposamenen betete mailaren ganeko txostena aurkeztu dau gaur Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoan. Foru Aldundiak arrakastaz bete dau 2015eko irailaren 1etik 2018ko irailaren 1era Lurraldeko Batzarretan onetsi diran 126 arauz besteko proposamenen %77. Aldundiak arrakastaz itxi ahal izan ditu Batzarretako taldeen 97 ekimen, eta 29 egikaritze maila “aurreratuan” dagoz, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak emon dituan datuak kontuan izanda.

Egia esan, Batzar Nagusiek arauz besteko 174 proposamen onetsi ebazan hiru urte horreetan, baina 126 (%74) izan ziran Foru Gobernuak aurrera daroan beharrean eragin zuzena eukien ekimenak, gaur goizean Batzarretan azaldu dan txostenak erakusten dauenez. Batzordeetan edo osokoan –48– onetsitako generako aginduak beste administrazio edo erakunde publiko batzuei zuzenduta egozan.

Bengoetxeak Foru Aldundian eragin zuzena eukien proposamenen egoeraren barri emon deutse Batzarretako taldeei. Sailei jagokenez, Euskera eta Kultura Saila izan da Batzarretako ekimen gehien jaso ditua. 37 proposamenek gobernu ekintzaren bat aurrera erotea eskatzen eutsien Lorea Bilbaok zuzendutako sailari, eta horreetatik 31 bukatu dira.

Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino eta Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapen sailek, barriz, 29 –28 bukatuta– eta 25 –14 bukatuta– agindu jaso ditue, hurrenez hurren. Elena Unzuetak zuzentzen dauen sailak Batzarretako 10 ekimen jaso ditu, eta hiru urte horreetan 7 amaitzea lortu dau.

Hamar ekimenen azpitik geratu dira Foru Aldundiko generako sailak; Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailak 8 jaso eta 6 amaitu ditu; Gizarte Ekintzak 7 agindu hartu eta 4 bukatu ditu; Ogasun eta Finantza Sailak 6 ekimen jaso eta 3 bukatu ditu. Zerrendea ixteko Herri Administrazio saila dago, arauz besteko 5 proposamen jasoz eta 4 amaituz.

Oposiziotik, Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa), aurkeztu dan eta legealdiko hirugarrena dan, txostenaren “irakurketa positiboa” egin dau, Batzar Nagusietan egiten dan beharra erakusten daudelako. Jesús Isasi batzordekide popularraren eretxiz, txostena “eskas samarra” da. Bere taldearen ustez, txostenak onetsitako itaunetatik eratorritako mozinoak be jaso beharko leukez.

Modu berean, Neskutz Rodríguez Podemos taldeko bozeroaleak faltan bota dau txostenean beste erakunde batzuetara zuzendutako arauz besteko proposamenen egungo

egoerea. Onintze Oleaga EH Bilduko batzarkidea ez da ados agertu txostenagaz, “hutsik” dagola esan dau, eta Foru Aldundiaren azalpenak “mozorrotuta eta makilatuta” dagozala adierazo dau.

Foru Gobernua eusten daben talde biek –EAJ-PNV eta PSE-EE-, barriz, Batzarretako arautegi barriak Aldundia, Batzarretatik sortzen diran ekimenen betete mailaren ganean “kontuak aurkeztera” behartzen dauela azpimarratu dabe, eta hori, X. legealdi honetara arte inoiz ikusi bako gauzea dala nabarmendu dau Juan Otermin sozialistak.

María Presa jeltzaleak oposizinoko taldeei gogoratuazo izan gura deutesenez, etorkizunean, onetsitako mozinoak txosten horretan sartzeko aukerea ari da aztertzen Aldundia une honetan. Batzarkideak esan dauenez, arauz besteko ekimenak betetea derrigorrezkoa dan arren, “zuzena da kontuak hartzea”, eta Bizkaiko Batzarretatik urtendako erabagien aurrean Aldundiak erakutsi dituan “errespetua eta koherentzia” jarri ditu balioan.

ESKAERETARAKO ETA HERRITARRAKAZKO HARTU-EMONETARAKO BATZORDEA

María Presa batzarkideak, Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordearen presidente moduan, Batzorde horren 2017ko irailaren 1etik 2018ko bagilaren 30era arteko Memoria-Txostena be aurkeztu dau gaur goizean. Idazki horrek erakusten dauenez, batzordeak 26 eskari landu ditu, 4 idazki eta 22 agerraldi eskari, eta 12 aldiz alkartu da, horreetatik behin atea itxita, Batzordeak eskatuta, “bertan landu behar ziran gaien sensibildadea eta datuen izaerea zirala eta”.

Legealdi honetan lehen aldiz martxan jarri ostean, Presak tresna horren balorazino positiboa egin dau. Hiru urte honeetan, Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordeak 89 gai landu ditu eta 42 aldiz alkartu da.

PFEZ-REN ALDAKETEIA LOTERIA ETA APUSTU JAKIN BATZUEN SARIAKAZ ERLAZIONAUTA

EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek izan ezik, Batzarrak osatzen dituen generako taldeek onetsi egin dabe loteria eta apustu jakin batzuen sariakaz erlazonautako puntuetan Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatzen dauen Arauzko Foru Dekretua. Holan, Bizkaiak 10.000 eurora igongo dau salbuetsitako diru-kopuruaren mugea 2018an, 20.000 eurora 2019an, 2020an 40.000 eurora heltzeko.

EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak, aldaketa horren kontra agertzeko errazoietakoz batzuk azaldu ditue: burujaubetza fiskalaren defentsa, jokoaren kaltegarritasuna, eta iruzurra sustatzen dauela.

ZAINZAILIAREN ESTATUTUA

EH Bilduk akordioa lortu dau Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeakaz, Zaintzaileen Estatutuari jagokonez, Gizarte Ekintza sailak, Durango aldean egiten ari dan esperientzia pilotuaren balantzea aurkeztu daian urtearen amaieran. Akordio horrek eskaria egiten deutso Sánchez Roblesen sailari, Zaintzaileen Estatutuan jasoten diran hainbat neurri “zaintzaile informalak izenekoak barru hartzeaz aparte, etxe barruko zaintzaileei zabaltzeko modua” aztertu daian.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek EH Bilduren hasierako mozinoaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeak talde guztien aldeko botoa jaso dau, abstenidu egin dan Podemos Bizkaiarena izan ezik.

HERRITARREN PARTAIDETZEA

Bizkaiko Batzar Nagusiek hirugarren txosten bati buruz be egin dabe berba: Herritarren parte hartzearen ganeko Azterlan Batzordearen ondorioen txostena. EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak boto partikularra emon daben arren, batzordearen presidentek, Jon Sánchez batzordekide jeltzaleak, batzordeak bere helburu biak bete dituala esan dau, “alkarren eretxiak entzutea” eta “akordiorako lekuak aurkitzea”.

Modu berean, Begoña Gil sozialistak azaldu dau urte bi horreetan “beste esperientzia batzuk ezagutzeko” aukerea izan dauela, “gure eredu propioa aurrera eroan ahal izateko”.

Neskutz Rodriguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak azpimarratu dauenez, beharrezkoa da “kolektibo, herritar, mobimendu eta erakunde gehiagoren inplikazioa” eukitea “Bizkaiko partaidetza eredia gauzatzeko prozesuan”. David Lopategik, EH Bildu ordeztuz, bere taldeak ez dauela bere burua erespenean “ordeztuta” ikusten esan dau, eta gogoratuaz dau partaidetzea “herritarrek politika publikoetan parte hartzea” dala, eta ez “herritarren partaidetzea instituzionalizetea”.

ZALDIBARKO ARMARRIA

Beste alde batetik, Batzar Nagusiek aho batez onetsi ditue Zaldibarko udal armarri barria, eta M1 3T eta M2 mugarren artean Zaldibarko eta Ermuko udal mugarteak aldatzeko proposamena.

EZ DIRA ONETSI ITAUNETIK ERATORRITAKO MOZINOAK

Bukatzeko, osokoak ez dau babestu Talde Popularrak, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak hartutako akordioa, Foru Aldundiari Gardentasunaren ganeko Foru Araua aldatzea eskatzeko, Bizkaiko webgunean “Aldundiko sektore publikoko lantaldeen izen zerrendaren identifikazio datuak” argitaratzeko. Akordio horretan eskaria egiten eben, baita be, sektore publikoa osatzen daben erakundeetako beharginen aukeraketa prozesuetan, epaimahai publiko batek administratutako “lehiaketa-oposizino sistema” ezarteko. Oposizino talde guztiak horren alde egon diran arren, proposamenak ez dau aurrera egin.

Modu berean, osokoak ez dau onetsi, kontrako 29 botogaz (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta aldeko 21 botogaz (EH Bildu, Podemos Bizkaia, Talde Popularra eta Mistoa), Podemos Bizkaiak aurkeztutako mozinoa, Aldundiari 0 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako egoitzaratze-erantzuna emotea eta Lehen Hautzaroari zuzendutako Arreta Programa garatzea eskatzeko.

NOTA DE PRENSA

24/10/18

La Diputación ha cumplido ya el 77% de las proposiciones no de norma aprobadas en los tres últimos años por las Juntas Generales de Bizkaia

La Diputación ha presentado hoy en el pleno de Juntas Generales de Bizkaia celebrado en Gernika, el informe sobre el grado de cumplimiento de las proposiciones no de normas aprobadas en la Cámara vizcaína durante los tres últimos cursos parlamentarios. El Gobierno foral ha cumplido con éxito el 77% de las 126 proposiciones no de norma acordadas en el parlamento territorial entre el 1 de septiembre de 2015 y el 1 de septiembre de 2018. El ejecutivo foral ha cerrado satisfactoriamente 97 iniciativas de los grupos junteros, mientras que 29 se encuentran en un grado de ejecución “avanzado”, según los datos ofrecidos por la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea.

En realidad, las Juntas Generales han aprobado en este último trienio 174 proposiciones no de norma, aunque fueron 126 (un 74%) las iniciativas que afectaban directamente al trabajo que desarrolla el Gobierno foral, según el informe hecho público esta mañana en la Cámara. El resto de mandatos aprobados en comisión o pleno -48- iban dirigidas a otras administraciones o instituciones públicas.

Bengoetxea ha trasladado a los grupos junteros el estado de las proposiciones que afectaban directamente al Ejecutivo foral. Por departamentos, el área de Euskera y Cultura se ha hecho cargo del mayor número de iniciativas parlamentarias. Un total de 37 proposiciones instaban al área dirigida por Lorea Bilbao a desarrollar alguna acción de gobierno, de las cuales han finalizado 31.

Por su parte, los departamentos de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, y Desarrollo Económico y Territorial, recogieron 29 – 28 finalizados- y 25 mandatos – 14 finalizados-, respectivamente. El área dirigida por Elena Unzueta, han recogido un total de 10 iniciativas parlamentarias, logrando finalizar en estos tres años 7.

Por debajo de la decena de iniciativas se ha quedado el resto de áreas del Ejecutivo foral; Empleo, Inserción Social e Igualdad, ha recogido 8 y ha finalizado 6; Acción Social ha recogido 7 mandatos y ha finalizado 4; el área de Hacienda y Finanzas, ha recogido 6 iniciativas y ha finalizado 3. Cierra el listado el departamento de Administración Pública que sólo recibió 5 proposiciones no de norma y ha finalizado 4.

Desde la oposición, Arturo Aldecoa (Mixto) ha realizado una “lectura positiva” del informe presentado, el tercero de la legislatura, puesto que refleja el trabajo que se realiza en las Juntas Generales. Por su parte, el apoderado popular Jesús Isasi ha definido el informe como “poco justo”. En opinión de su grupo, éste debería incluir las mociones derivadas de interpelación aprobadas.

De igual manera, la portavoz de Podemos, Neskutz Rodríguez, ha echado en falta en el informe el estado actual de las proposiciones no de norma dirigidas a otras instituciones. La representante de EH Bildu, Onintze Oleaga, ha mostrado su disconformidad con el

informe definiéndolo como “vacío” y ha manifestado que las explicaciones de la Diputación Foral están “enmascaradas y maquilladas”.

Sin embargo, los dos grupos que apoyan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- han destacado que el nuevo reglamento de las Juntas obliga al Ejecutivo a “hacer un ejercicio de rendición de cuentas” sobre el cumplimiento de las iniciativas que emanan de la Cámara, lo que “nunca” se había hecho hasta esta X legislatura, según el socialista Juan Otermin.

La jeltzale María Presa, ha querido recordar a los grupos de la oposición que actualmente se está estudiando la posibilidad de incluir en un futuro las mociones aprobadas en este informe. La apoderada ha señalado también que pese a que las iniciativas no de norma no son de obligado cumplimiento, “es justo que se tengan en cuenta”, y ha puesto en valor el “respeto y coherencia” que ha demostrado la Diputación ante las decisiones emanadas del Parlamento vizcaíno.

COMISIÓN DE PETICIONES Y RELACIONES CON LA CIUDADANÍA

La apoderada Maria Presa, en calidad de Presidenta de la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, ha presentado también esta mañana el Informe memoria de la propia comisión en el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2017 y el 30 de julio 2018. Según este escrito, la comisión ha tratado un total de 26 peticiones, 4 escritos y 22 solicitudes de comparecencia, habiéndose reunido la misma en 12 ocasiones, una de ellas a puerta cerrada por acuerdo de la Comisión, “debido a la sensibilidad de los asuntos y al carácter de los datos que se trataban”.

Tras ponerse en marcha por primera en vez durante esta legislatura, Presa ha realizado una valoración positiva de esta herramienta. Durante estos tres años, la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía ha tratado un total de 89 asuntos y se ha reunido en 42 ocasiones.

MODIFICACIÓN DEL IRPF EN MATERIA DE PREMIOS DE LOTERIAS Y APUESTAS

A excepción de los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia, el resto de grupos que conforman la Cámara han aprobado el Decreto Foral Normativo que modifica la Norma Foral del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas en relación con los premios de determinadas loterías y apuestas. De esta manera Bizkaia eleva el límite de la exención a los 10.000 euros en 2018, 20.000 en 2019, hasta alcanzar los 40.000 euros en 2020.

EH Bildu y Podemos Bizkaia han enumerado algunas de las razones para rechazar esta modificación: la defensa de la soberanía fiscal, la nocividad del juego y el hecho de que éste fomenta el fraude.

ESTATUTO DEL CUIDADOR

EH Bildu ha alcanzado un acuerdo con los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos en relación al Estatuto de Personas Cuidadoras, para que a final de año, el departamento de Acción Social presente un balance de la experiencia piloto que se está realizando en la zona de Durango. Dicho acuerdo también insta al área de Sánchez Robles a estudiar “cómo se pueden extender a las personas cuidadoras en el hogar – además de

las cuidadoras informales” diversas medidas recogidas en el Estatuto de las Personas Cuidadoras.

Esta enmienda presentada por PNV y PSE-EE a la moción inicial de EH Bildu ha contado con el voto favorable de todos los grupos, a excepción de Podemos Bizkaia, que ha optado por la abstención.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Las Juntas Generales de Bizkaia han hablado sobre un tercer informe: el informe de conclusiones de la Comisión de Estudio sobre participación ciudadana. A pesar del voto particular emitido por los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia, el presidente de la comisión, el apoderado nacionalista Jon Sánchez, ha manifestado que la comisión ha cumplido con dos objetivos, “escuchar opiniones mutuas” y “encontrar espacios de acuerdo”.

De igual manera, la socialista Begoña Gil ha explicado que a lo largo de estos dos años han tenido la oportunidad de “conocer otras experiencias” para “poder desarrollar nuestro propio modelo”.

La portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodriguez, ha incidido en la necesidad contar con la “la implicación de más colectivos, ciudadanía, movimientos y diferentes entes en la elaboración del modelo de participación en Bizkaia”. En representación de EH Bildu, David Lopategi, ha asegurado que su grupo no se siente “representado” en el dictamen y ha recordado que la participación es que la “ciudadanía participe en las políticas públicas” y no “institucionalizar la participación ciudadana”.

ESCUDO DE ZALDIBAR

Por otra parte, Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado por unanimidad el nuevo escudo del municipio de Zaldibar, así como la propuesta de alteración de los términos municipales de los municipios de Zaldibar y Ermua, entre los mojones M1 3T y M2.

MOCIONES DERIVADAS DE INTERPELACIÓN RECHAZADAS

Finalmente, el pleno ha dado la espalda al acuerdo adoptado por Grupo Popular, EH Bildu y Podemos Bizkaia en la que se instaba a la Diputación Foral a modificar la Norma Foral de Transparencia para publicar en la página web de Bizkaia “los datos identificativos de la relación nominal de las plantillas del sector público foral”. En dicho acuerdo también instaban a la Diputación a implantar en los procesos de selección de personal de los entes que conforman el sector público, “un sistema de concurso – oposición” administrado por un tribunal público. A pesar de contar con el apoyo de todos los grupos de la oposición, la iniciativa no ha salido adelante.

Asimismo, el pleno ha desestimado por 29 votos en contra (PNV y PSE-EE) y 21 a favor (EH Bildu, Podemos Bizkaia, Grupo Popular y Mixto) una moción de Podemos Bizkaia que instaba a la Diputación a dar una respuesta residencial a los y las menores de 0 a 6 años y diseñar y desarrollar un Programa de Atención a la Primera Infancia.